

geminaciones que antes no se explicaron”, “Bete y bat”, “Z en flexiones remotas”, “Jaun-andreak”, “A en interrogacion”, “Dos casos de excepcion raros y curiosos”. Oso pozik entzun dira.

Zamarripa jaunak dirakurz beste lantxo batzuk. Euroen atzalburuak onexek dira: “El articulo determinado sin valor traductivo”, “Particularidades de beste”. Gero “Jesus on-ona” atzalburutzat daroezan bertso batzuk bere, irakurten dauz. Onex bere oso pozik entzun dira.

Eta beste barik araudizko otoitzaz emon dako batzarrari amaiera.

\* \* \*

Donostia'n mila bederatzireun eta berrogetasei'garren urteko Azila'ren ogetazorzizi'an, Gipuzkoako Ekauta'ren jauregian, Azkue, Urkijo, Etxaide ta Oleaga euskaltzainak batzen dira, lenengoa maipuru dabela, il oneri dagokun Euskaltzaindia'ren batzarra egiteko.

Araudizko otoitza egin da gero, lenaurreko batzarra'ren agiria irakurri da, ao batez onesten dala.

Urrengo Azkue jaunak “Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas” deritxon lan ederraren atal batzuk dirakurz. Entzuleak oar egoki batzuk egiten dautsez.

Eta beste barik araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

\* \* \*

Bilbao'n mila bederatzireun eta berrogetazazpi'garren urteko Ibelza'ren ogetaamaikan, Euskaltzaindia'ren etxean, Azkue jauna maipuru uala ta Urkijo, Zamarripa ta Oleaga jaunak bertan dirala, egiten dau Euskaltzaindia'k il oneri dagokun batzarra.

Araudizko otoitzaz emoten jako asiera, eta lenaurreko batzarraren agiria irakurri ta ao batez onesten da.

Urrengo erdal-euskera iztegia atondoten diarduan batzordeak, lan ori zelan doan azaltzen dau.

Urrengo adierazoten da Jose Etxeandia, Nabarniz'ko eleizburu jaunak “Kristau ikaskizuna” deritxon liburutxo bialdu dabela, beronezaz Euskaltzaindia'ren eretxia ta onespina eskaturik. Azkue ta Oleaga euskaltzainak aztertu dagiela ta euren ixostena emon dagiela, erabagi da.

Gero, Azkue jaunak irakurri ditu “Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas” deritxon liburu ederraren zati batzuk.

Azkenez Zamarripa jaunak “Bete reemplazando a bat” deritxon lan polit bat irakurri dau.

Ta beste barik eta araudizko otoitzaz emon jako batzarrari amaiera.

\* \* \*

Mila bederatzireun eta berrogetazazpi'garren urteko Epaila'ren ogetazortzi'an, Donostia'n, Ekauta'ren jauregian, Azkue jauna maipuru dala, batzen dira Urkijo, Etxaide ta Oleaga euskaltzainak, il oneri dagokun Euskaltzaindia'ren batzarra egiteko.

Beti legez, araudizko otoitzaz emoten jako asierea.

Lenaurreko batzarra'ren agiria irakurten da, eta ao batez onetsi da.

Urrengo Azkue jaunak jarraitu dau bere “Estudios comparativos entre el vascuence y varias lenguas cultas” deritxon lan ederra'ren atal batzuk irakurten.

Etxaide jauna'k diño, Euskaltzaindia'ri nasaitasun geiago emoteko, ondo litzakela Aurrezki-kutxa ta beste onango batzuri, sorospidea eskatzea. Aintzakotzat artu da asmo au.